

AITA ANAKLETO DE SALAZARREN
100. URTEBETETZEAN JARRITAKO BERTSOAK (1911)

La Gaceta del Norte egunkari bat zen, Bilbon argitaratzen zena, bizitza luzekoa (1901-1984), ideologiaz katoliko eta kontserbadorea, zeinean pasatu den mendeko bigarren hamarkadan agertzen baitziren lantzean behin –oso lantzean behin– kolaborazioak euskaraz, egunkariaren ideologiako edo ideologia horren hurbileko idazleek bidaliak. Karmel aldizkarian jadanik argitaratu ditugu Etxeitaren (Karmel 303, 37-54 (2018-3)) eta Zamarriparen (Karmel 305, 68-76 (2019-1)) lantxoak. Oraingo honetan bertso batzuk ekartzen ditugu, 1911ko uztailaren 16an argitaratuak, Aita Anakleto de Salazarren omenez argitaratuak.

Aita Anakleto

Bizitza luzekoa izan zen Anakleto de Salazar y Sobrevilla. Araban, Quintanilla Gaubean, jaio zen 1811ko uztailaren 13an (kokatzeko, Napoleonen armadek Europa osoa zeharkatzen zuten garaian), eta Burgosko ipar-ekialdean aritu zen bere lehen urteetan. Kontsultatutako haren biografiaren iturriek denek informazio antzeko edo berdina ematen dute, batek kopiatuz edo parafraseatuz besteak aurretik idatzitakoa. Guk hemen horixe berori egingo dugu, erabilitako iturriek hauexek izanik: Aita Anakletoren 100. urtebetetze-eguneko ospakizunak iragartzen zituen La Gaceta del Norteko artikulua¹, eta bere heriotzaren ondoren argitaratutakoak, panegi-

¹ El Padre Anacleto. La Fiesta del Centenario. La Gaceta del Norte, 1911-07-13koa

riko moduan kalifika daitezkeenak: aipatutako egunkariko artikulua bat², Euskalerrriaren alde aldizkarian *Berrizalek* sinatutako artikulua³, Euskal-Erria aldizkarian *TEAk* sinatutako artikulua⁴ eta egilearen izenik edo ezizenik gabe Bergaran argitaratutako opuskulu bat⁵.

Nerabezaroa Tartalés de los Montes herrixkan pasatu zuen, ikasketak ordaintzeko latin eskolak emanez. Gero San Agustinen Kanonigo Erregularrekin Filosofia ikastera joan zen Burgosko Frías hirira eta 18 urterekin fraide haiekin bizitza erlijiosoan sartu zen Santa María de Vadillo-n. 1835eko irailaren 19an apaiztu zen, baina hilabete gutxira ordenaren desegite-aginduaren ondorioz, apaiz sekular moduan aritu zen, lehendabizi Karankan (Gaubean), gero Espejon, Quintanilla Gaubean, eta Bóvedan (Gaubean). Kapilau moduan egon zen Espejon eta Bilbon. Azken hiri honetan zegoela, jakin zuen ezen San Agustinen Kanonigo Erregularrak, Frantziatik egoztiak, Oñatin establezituak zirela, eta hara joan zen ordenakidekin elkartzuz 1889ko azaroaren 12an, eta bizitaren enparaua bertan iragan zuen.

Ibilbide profesionalean Aita Anakletok sermoilari onaren fama hartu zuen, eta herriko jende xehearekin zuen hurbiltasuna goraiatzeko da haren biografietan. Meritu horiengatik eta adinean luze izateagatik omenaldiak etorri ziren. Lehena, 1910ean, bere apaizgoaren 75. urteurrenean, zeinean Aita Santuak eskutitz autografoa bidali baitzion, eta ospakizunetara hurreratzen zirenei Indulgentzia Plenarioaz sarituz.

² El P. Anacleto ha muerto. En Oñate. A los 104 años de edad. La Gaceta del Norte, 1915-03-19koa

³ Berrizale: El P. Anacleto de Salazar. Euskalerrriaren Alde, 102, 191-192 (1915)

⁴ TEA: Crónica. El P. Anacleto... Euskal-Erria, 72, 288-290, 1er. semestre (1915).

⁵ A la memoria del Ilustrísimo y reverendísimo P. Abad D. Anacleto de Salazar y Sobrevilla canónigo regular lateranense. Vergara. Tip. de "El Santísimo Rosario" (1915).

Bigarren omenaldia entzutetsuagoa izan zen. 1911ko uztailaren 13an izan zen, hau da, bere 100. urtebetetze-egunean. Hil bi lehenago Abate Mitratua nonbratua izan zen, eta men-debetetze-egunean bere lehen Meza Pontifikala eman zuen. Iruñeko apezpikua, José López Mendoza jauna, friastarra eta Aita Anakletoren ikasle ohia, han izan zen. Jendetza batu zen Oñatin eta Aita Santu Pio X.ak emandako Indulgentzia Plenaria irabazi zuen. Bertaratu ez ziren autoritate eta kapareen atxekimendu ugari heldu ziren, besteak beste, Gasteizko apezpiku José Cadena jaunarena, Espainiako errege Alfonso XIII.arena eta Ordenako buruena. Ekitaldi haien kariatz idatzi eta argitaratu ziren hona ekarritako bertsoak.

Heriotza 1915eko martxoaren 15ean, ostegunez, heldu zitzaion, hamar hilabete lehenago pairatutako apoplejia-episodio baten ondoren. Gorpua katafalko batean kokatu zen Areto Kapitularrean, jendeak agurra egiteko eta emateko. Klausura barruan egonik, hura izan zen herritar askorentzat halako tokira sartzeko lehen abagunea, batez ere andrazkoentzat.

Larunbatean, hilaren 18an, hileta-elizkizunak ospatu ziren, zeintzuetara multitudeak joan baitziren, bestak beste, Udal plenoa, alkatea buru, herriko epaitegikoak, Guardia Zibilaren tokiko burua, Mikeleteena, Arantzazuko Frantziskotarren komisia, Anaia Maristen komunitatekoak beraien ikasleekin, Ama Benediktino agurgarriak beraien ikasleekin, Ospitaleko eta Zelakoako Karitatearen Ahizpak, Mariaren Mirabeak, Bilboko Salestar Misionariak, eskola publikoetako neska-mutilak beraien estandarteekin eta maisu-maistreakin, herriko udal-banda, kanpotik etorritako lagunak eta herrikide asko. Meza ostean, Aita Bisitadore eta Priore Don Carlos Arrizabalagak eman zuen azken hitzaldia, emotibo handia. Ekitaldi horrek guztiorrek agerian uzten ditu Aita Anakletoren ospea eta fama ona.

Bertsoak

Goiago esan denez, hona dakartzagun bertsoak Aita Anakletoren 100. urtebetetzearen ospakizunen kariaz idatzi ziren, eta La Gaceta nuztailaren 16an argitaratu. Ez dute zailtasun berezirik eta transkripzioa egiterakoan huts ugari, sistematikoa izanik, zuzendu egin dira. Horrela, z behar zuen tokian r agertzen da sarri, eta u behar zuenean n ; ematen du linotipistak ez zekiela euskaraz.

Beste kontu bat da egilearena. Sinatzailea E. Lasa da. Esaten duenagatik, apaiza da, idazterakoan jariora erakusten du, beraz pentsatzekoa da trebetasuna bazuela euskaraz idazteko. Egileaz informazioa topatu guran, idazleen gaineko ohiko erreferentzietan ez dut aurkitu izen horrekin ados zitekeen idazlerik. Niretzat, oraingoz, zurtz dago.

Eskerrak

Eskerrak eman nahi dizkiet Kepa Altonaga, Sebas Garcia Trujillo eta Iñaki Sarriugarte adiskidei artikulua irakurketagatik eta egindako iradokizunengatik.

Aita Anakleto jaunari bere egun kidako urtian⁶

1

Egun urte munduan beterik
Jaunaren serviziora santuan,
Emen gaude guztiok bildurik
Danok zu honratzeko azmuan.

2

Buruan dezu ille zuriya
Ortzak berriz palta aguan,

⁶ Jatorrizkoan: Aita Anakleto jaunari Cere egun kidako urtian. Ehunkida = mende

Baña adimentua dezu arguiya
 ¡Bizkorra zaude zu oraindik munduan!

3

Burukoi⁷ aundiya dezu buruan
 Errestun ederra berriz eskutik,
 Eta cillar bakulua albuán
 ¡Gaur zaude bat Obispo jantzirik!

4

Aita Santuak goguan arturik
 Abad-en titulua emanik eskuan
 Eta bere eskutitz ederra guerostik
 ¡Cer zorienekua heran gaur munduan!

5

Apaiz asko gaude zure onduan
 Lenago Oñatin ikasiyak izanik
 Gueroztik munduan zabaldurik
 Animak salbatzeko asmuán.

6

Asko gaur emen bildurik
 Jesta eder au celebratzeko goguan
 Guztiok batera zugatik errezuan
 Zure Meza santuan poses beterik.

7

¿Cer guertatzen da Oñati aldetik?
 ¡Oh! festa aundiya gure inguruan
 Soñu ederrak bai alde guztietatik
 Danak Aita Anakleto goratzeko asmuán.

⁷ Burukoi = buru-koroi(?), mitra

8

Egun urterekin poses beterik
Jantzirik gaur Obispuaren moduan
Arguiya ta bizkorra oraindik
¡Ez dago zu bezelakorik munduan!!!

9

Agur, bizi zaitezela urte askuan
Zoriontasunez munduan beterik,
Eta emen gaudenak zure onduan
Guero ikusi gaitezela zeruan bildurik.

*E. Lasa
Uztailla 13-911*



*Aita Anakleto de Salazar y Sobrevilla,
beriotza baino lehentxoago egingiko argazkia*

(argazkia, hemendik hartuta: <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/mo-no/algip/ag066068.pdf>)

Jacinto Iturbe